

Europar kultura: egia ala gezurra?

Eugenio Arraiza
Kultur eragilea

Europako estatuetan eta, batez ere, Europar Batasuna osatzen duten egituraketa politikoaren agiri eta aldarrikapenetan, "Europar kultura" esaten zaio oso lanbrotu den kultur kategoria bati. Urteetan ari izan dira balizko europar kultura horren mamia aztertzen. Azken hamarkadan ohartu dira batere ados ez daudela, izan ere, estatu partaide bakoitzak bere kulturaz baino axola gutxiago eta mesfidantza gehiago du kultura amankomunaz. Beraz, kulturaren gaia bazterrean utzi edota zokoren batean gorde dute.

Honekin, ordea, ez dute ezer aurreratu, europarren kultura nolakoa nahi dugun argitzeke baitago. Gainera, Europako estaturik gabeko herrien kulturak globalizazioaren mehatxupean sentitzen dira. Lerrootan, giza balioak eta Europako herri guztiak errespetatuko dituen kultura baten aldeko proposamena egiten dugu.

In the European Union's headquarters the expression "European culture" has often been employed, almost like a feeling, but nobody knows its real meaning. The European office workers have tried to develop the idea for years, but nowadays they realise that the politicians are less interested in the hypothetical common culture than in the defence of their own country's culture. In the last decade the phantom of mutual distrust has possessed the meetings and documents of the EU and, in the end, even the phantom doesn't appear, only economic matters.

Europeans and especially the people of the stateless countries are not keen to be waiting for solutions that never arrive. The threat of globalisation looms over the very existence of those cultures that have flourished over the centuries. In this article some proposals are made in order to build a European culture on the basis of individual and collective human rights.

Hainbat¹ kultur arlotan eta, batez ere, goi-administrazioarekin eroso sentitzen diren erakundeak, “europar kultura” esaerarekin gora eta behera ari dira. Guztiok europar kultura zer den bagenek bezala ari dira, kultura europarra delako horrek zerbaite argi eta garbi adieraziko balu bezala, alegia.

Badirudi “Europar Kultura” adierazpenaren baitan europarrak oro berez bat egiten dituzten ezagutzak, baloreak eta sentimenduak biltzen direla. Horren arabera, esan daiteke europar kultura identitate ezaugarriaren emale dela. Beraz, europar guztiek kultura bat bera dutela onartu ez ezik, beren buruen isla beronetan ikusiko lukete. Baina europar kulturaz ari garenean, ordea, hori ulertzen badugu, esan dezakegu zerikusi estuagoa duela asmakizunekin errealitatearekin baino.

Antzeko zerbaitek inoiz guztiak bat egiten ahal gaituela sinesteko oinarriak izan badirela ukatu gabe, eta, hain zuzen ere, helburu horri buruz urratsak eman asmoz, guztion Europa eraikitze gogoari jarraikiz, ezinbestekoa da batetik, egun zertan gauden ohartzea eta, bestetik, berriz, europarrok gure antzekotasunak eta berezitasunak nola ulertu behar ditugun jabetzea.

Europar ezagutza horien inguruan interesa dutenentzat, batez ere, beroien zabalkuntzan interesa dutenentzat, adierazpen hori zehazten eta ñabardurak ematen saiatuko naiz. Hasteko, europar kulturaz zer ulertzen dugun argitzea komeni litzateke, ideia hori gure kultur ekimenaren oinarritzat hartu baino lehen. Kultura hitzaren esanahiaren azterketa bikoitzak gaiaren gakoa zertan datzan kokatzen lagunduko digu: lehenik analisi etimologikoa egingo dugu eta gero erabilerari buruzko azterketa.

1. Etimologia

*Kultur, cultura, culture*² hitza Europako hizkuntzen artean erabilienetakoa den erro bereko hitzen artean kokatzen da. Gainera, bakoitzaren esanahia, gutxi gorabehera, berdintsua da hizkuntza desberdinetan. Horregatik, hitz honen inguruan egin dezakedan gogoeta linguistikoa, inguruko beste hizkuntzetara eramaten ahal da, jakinik, esanahiari dagokionez, ñabardurak salbu, aldaketa nabarmenagirik ez dela gertatuko.

Kultura izena latinezko aditz batetik dator eta ez beste izen batetik, hain zuzen ere, *colo, colis, colere, colui, cultum* aditzetik. Bere klase gramatikalaren aldaketak berberak (aditz formatik izenera), ikuspegi semantiko batetik ere aldatarik izan duela aditzera eman lezake. Aditzak dinamikoak izaten diren modu berean, izenak estatikoak izaten dira. Latinezko aditza erromantzerara pasatu denean, antzekotasuna duen prozesua gertatu da, baina funtzio nahiz eremu desberdinetako izen berrien oinarri bilakatu da. Har dezagun gaztelaniaren adibidea:

1. Orri hauetan biltzen den edukia, Nafarroako Unibertsitateak 2000.eko urriaren 25 eta 28 artean VI *Congreso de Cultura Europea* deritzan jardunaldien baitan aurkeztu zen.

2. *Kultur* alemanez, *cultura* gaztelaniaz eta *culture* ingelesez edo frantsesez erabiltzen dira, ñabardura batzuk gorabehera antzeko esanahiarekin.

- Cultura
- Cultivo³
- Culto

Erro beretik datozen hiru izen horiek, giza ekimenaren (erne datu honen aurrean) hiru eremutan gauzatzen den giza prozesuari loturiko ezaugarri baikorrak daramatzate: lurrari lotutako lanean, ezagupenean eta erlijiotasunean. Beroien esanahiaz, garbi dagoenez, ez gara hemen luzatuko. Baina erro berean oinarriturik egoteak, batzuetan elkarren arteko ordezkapena edo nahasmena sortarazten du. Adibidez, gaztelaniaz ari garenean, ez dugu *agricultivo* esaten, logikoena litzatekeen bezala, *agricultura* baizik. Abereen hazkuntzaz ari garenean, beti ere gaztelaniaz, *canaricultura* diogu, nahiz hitzak berezi samarra dirudien. Pertsona batetaz, berriz, jantzia dela, jakituna dela esateko, *cultivada* ere erabiltzen dugu ‘cultu’ zentzuarekin, nahiz kasu honetan ez dugun erlijiozko loturarik egiten, *culto* hitzarekin, alegia.

Aldi berean, batez ere Garaiko Historian, izan badira latinezko erro beretik datozen zentzu ezkorreko hitzak: adibidez, gaztelaniazko *colonizar* aditza bere hitz eratorri guztiekin. Errenazimenduan sortu zen eta sorreran zentzu onean erabiltzen zen. Mundu Berriko bizilagunei konkistatzaileek eramandako eta emandako teknika eta jakintzaren eskaintza adierazi nahi zuen. *Kolonoak* ere, literatur mota batean bederen, zineak goraiatu eta telebistak zabalduetako heroiak izan dira. Dena dela, hondarreko mendeetan, gizateriak eman dituen aitzinapausoetan ekimen horien ondorio latzak agerian gelditu dira. Egun “kolonizatuek” ez diete esker onik agertzen “kolonizatzaileei”, ez Estatu Batuetan, ez eta ere mundu zabaleko beste bazterretan. Kolonizatzaileak angloak, hispanoak, germaniarrak, galiarrak edo lusitaniarrak izan direla izan, guztiek (kolonizatzaileek) jasaten dute azpian hartu zituztenen saiheste psikologikoa. Hain da begibistakoa sortu den erreakzioa, non egun bestelako aitzakiapean egiten diren kolonizazioak, ez duten nahi izaten ekimen kolonizatzaile gisa agertu.

Argi eta garbi dago latinezko *colo* aditzaren erroa mendebaldeko hizkuntzetan ongi txertatua dagoela, kimu berriak eman dituela, eta, laburki bada ere, azaltzen saiatu garen ondorio semantikoak dituela. Batetik, esanahai sendo eta aberatskoak dira, baina bestetik, aditzera ematen duten prozesua ez dezakegu neutrotzat jo. *Cultura*, *cultivo* eta *culto* hitzek bere zentzurik onena atxikitzen duten modu berean, “kolonizatzeak” edo bere kideek, Historian zeharreko bidea aurreko hitzekin batera egin duten arren, ez dute inondik inora ere onespenik gure gizartean.

Europara begira jartzen bagara, herrialde guztiek gogoan ditugu, ongi gogoan ukan ere, Historian zeharreko zenbait pasadizu, non Europaz kanpoko herrien mehatxu kolonizatzaileak edo Europako beste estatuak nahiz estatu bereko barne herrienak, garai eta arrazoi desberdinak tarteko, egiazko errealitate bihurtu diren. Hain zuzen ere, europarrok daukagun kultur ezaugarriak nabarmenenetako bat gure inguru-minguruko herrialdeek izandako saiakera anexionisten memoria historikoa da. Badirudi, beraz, Europar Batasunaren baitan aurrera begira elkarrekin

3. *Cultivo* euskaraz ez dugu erabiltzen, ez dugu latinetik hitz eratorririk hartu behar izan hori adierazteko. *Nekazaritza*, *laborantza* hitzak ditugu horretarako. Aldiz, *kultura* eta *kultu* hitzak gurean ere badira.

biderik eginen bada, guztiok elkarri zor diogun begirunearen baitan egin beharko dela egitekoz.

2. Erabilerari buruzko azterketa

Kultura hitzaren konplexutasunaz behin jabetu ondotik, bere erabilerari buruzko azterketaren bidez, historian zehar mendebaldeko gizartean izan duen esanahian murgil gintezke. Zehatz-mehatz egindako azterketa batek anitz denbora jango liguke. Hori dela eta, inguru europarrean egiten den erabilerari lotuko gatzazkio; eta, zehazkiago gainera, Europar Batasunaren aitzindariak beren agiri ofizialetan eta lanetan darabilten ikuspegiari.

Hain zuzen ere, gagozkion gaiari buruz, 1999an kaleratu zuen Bruselako Bruylant argitaletxeak Caroline Brossat anderearen tesia (Brossat 1999). Izenburuak honela dio: *La culture européenne: definitions et enjeux*, alegia “Europar kultura: azalpenak eta jokoan dagoena”. *Enjeu* hitzak jokoan dagoena, mahai gainean konpontzeke dagoena, norgehiagoka, ekinaldi baten premian dagoena, hori guztia adieraz dezake edo, behintzat, hori ekarrarazten digu gogora.

2.1. Eduki desberdinak

Brossatek egin ikerketaren ondorioetako bat zera da, alemaniar kulturaren *Kultur* hitzaren esanahia ez dela frantsesezko *Culture* hitzaren berdina. *Culture* hitzak datu bilketa, nahiz ilustrazio garaiko jarrera edo jokabide finekin luke lotura. Aldiz, alemanezko *Kultur* erromantizismo garaian atxikitako zentzuari lotzen zaio eta herrialde bakoitzeko kultura etniko nahiz nazionalarekin zerikusia du. Hona hemen Caroline Brossatek dioena:

Norbert Eliasek *Kultur* eta *Civilisation*-en arteko desberdintasunaren azalpena Alemaniako eta Frantziako egoera historiko desberdinei leporatzen die. XVIII. mendeko klase ertain alemana jantzia zen eta noblezia, aldiz, ezjakina, arina eta frankofonoa. Aberastearekin nahikoa zuenez, ez zuen sarrerarik ukan botere politikoan. Zibilizazioaren ikuspuntu frantsesari atxikia bizi zen, aristokrazia berekoiaurrean, bere asmoetan sakabanatua eta zapuztua. Egoera honen aurrean, klase honek berezitasun nazional baten ideia sortu beharra zuen, Alemania beste herrialdeetatik bereizteko batasuna sortzea: «burgesia jantziak izateko arrazoi bat eta justifikazio bat atzemango du bere egite intelektualen balorean. Baina bere izatea eta bere berezitasuna adierazteko aristokraziarenak ziren aurkako gustu eta ereduak hartuko ditu» (adibidez, alemanaren erabilera). Kultura bertuteari, jatorrizko baloreei, alemanez ari den herri baten benekotasunari lotzen zaio, eta zibilizazioa berriz artificio ideari, ezarritako arauetara eta artifizialkeriari.

Kulturaren ideia nazionalista Nietzschekin batean sortzen da, batzuentzat desadostasun nazionalen aurrean makurtzeko moduko eredu berezi bat bilakatzen delarik: «Kulturak herri baten bizi-adierazpenak eragiten eta elkartzeko dituen bizitzeko modu bat jasotzen du». Bestalde, ikuspuntu nazionala antzinagokoa da Alemanian Frantzia baino, izan ere XIX. mende hastapenean azaltzen baita, hitza bera nazio ideiarekin lotzera doanean. Ph. Benetonek ondokoa dio:

Kultur ideia lorpen intelektual eta moral guztien baieztapen bezala ulertzen da, nazio baten edo estatu baten berezko ondasuna —bakarra ez bada— osatzen dutena. *Kultur*, beraz, zibilizazio ideiarekin aurkakoa da, desberdintasun nazionalak eta

berezitasunak azpimarratzen dituen: Kulturak izaera murriztailea du, geografikoki mugatua, berezitasunak eta nazio bertuteak nabarmentzen dituena. *Kultur* hitzak berezitasuna azpimarratzen du, buruko alderdia egite materialak salbu. Bere batasuna oso berandu erdietsi zuen herri baten hitz kutunena *Kultur* da eta oraino alemaniar herriaren izaerari buruzko galderarekin batean nazioaren errotzearekin amets egiten zuenarena⁴.

2.2. Europar erakundearen erabilera

Caroline Brossaten ikerketak, besteak beste, Europako erakundeetan beraien sorreratik 1996a bitarte erabiltzen joan diren hitzen nondik norakoak azaltzen ditu. Lan honekin batera biltzen ditugun koadroetako batzuek, hitz batzuen eta besteen erabilerearen eta desagerpenaren berri ematen dute. Aldi berean, zeintzuk eta noiz izan diren onartuenak agerian gelditzen da beraien erabilpenaren maiztasunaren arabera⁵.

2.3. Ikerketaren ondorioak

Europar Batasuneko erakunde desberdinetako agiri nagusien azterketaren ondotik, laburbiltzen saiatuko naizen esamoldeen bilakaeraren berri ematen du Caroline Brossatek.

Erakunde horietan lehenik *europar zibilizazioa* erabiltzen dute eta emeki-emeki *europar kultura* erabiltzera jotzen dute. Azken honek onespina lortzen duenean, berriz, *europar kulturak* kontzeptuaren txertatzea dator; halaber denbora pasa ahala zehaztuz joango da *nazionala*, *herrialdekoa*, *lokala* edo *gutxitua* diren. Aldi berean, erabilera horiek guztiak garaiko egunerokotasunean indartuz joango diren kontzeptuak dira.

4. Brossat 1999: 22-23. Brossatek paragrafo horretan E.M. Lipiansky, G. Ferreol, Ph. Beneton eta M. Grawitzen ideiak jasotzen ditu. Jatorrizko bertsiok honela dio: «Norbert ELIAS renvoie l'explication de l'opposition Kultur/Civilisation à des situations historiques différentes en Allemagne et en France. La classe moyenne allemande du XVIIIe siècle, instruite, s'oppose à la noblesse de cour inculte, frivole et francophone. En s'enrichissant, elle n'a pas pour autant accès au pouvoir politique. Elle est dispersée et frustrée dans ses aspirations face à une aristocratie fermée acquise à la notion française de civilisation. Devant cette situation, cette classe a besoin de créer l'idée d'une spécificité nationale, de créer l'unité en distinguant l'Allemagne des autres pays: 'la bourgeoisie cultivée va trouver une raison d'être et une justification dans la valeur de ses réalisations intellectuelles. Mais pour affirmer son existence et sa spécificité elle adopte des goûts et des modèles opposés à ceux de l'aristocratie' (à travers, par exemple, l'emploi de la langue allemande). La culture est liée à la vertu, aux valeurs originelles, à l'authenticité d'un peuple parlant allemand, et la civilisation l'est aux notions d'artifice, de règles fixées, d'artificialité.

C'est avec F. NIETZSCHE que naît le concept nationaliste de 'culture' qui devient pour certains un modèle spécifique devant se plier aux clivages nationaux: 'La Kultur désigne un style de vie imprégnant et unifiant toutes les manifestations vitales d'un peuple'. D'ailleurs, l'aspect 'national' est beaucoup plus ancien chez les Allemands que chez les Français, puisqu'il apparaît au début du XIXe siècle, où le mot tend à se lier au concept de nation. Selon Ph. BENETON, 'la notion s'affirme d'une Kultur entendue comme un ensemble de conquêtes intellectuelles et morales qui constituent le bien propre sinon exclusif d'une nation ou d'un Etat'. Kultur s'oppose alors à civilisation en soulignant les différences nationales et les particularités: 'La culture a un caractère restreint, géographiquement limité, accentuant les particularités et vertus nationales'. Kultur met l'accent sur le spécifique, 'sur l'aspect mental à l'exception des réalisations matérielles'. Kultur est le terme préféré d'un peuple ayant accédé très tard à l'unification, et revêt alors une dimension de consolidation de la nation par une interrogation sur le caractère du peuple allemand».

5. Ikus hori guztia adierazten duten koadroak liburuaren gehigarrian.

Une horretan berean, *europar kultura*, alegia, geroari buruz lortu nahi den helburua, eta *europar kulturak*, egunerokotasun hurbilari atxikiegia dauden errealitateak talka arriskuan somatzen dira. Bien arteko elkarretaratze saioan, *europar kultura* kontzeptuaren azalpen berri bat gogoetagai bihurtzen da. Hala ere, intelektualek egin saio guztiek antzinako irudiak ezin dituzte gainetik astindu. Lortu nahi zen helburua betetzeke gelditzen da, geroari buruzko inolako erakargarritasunik gabe.

Hirurogeigarren hamarkadaren erdi aldean, gerra ondoko birreraikuntzak ekarritako garapen ekonomikoaren garaian, kontzeptuen krisia da nagusi. Amerikarrek eman laguntzak, neurri batean bederen, kultur kolonizazio bat ere suposatu zuen, berezko kultur ikuspuntutik maldan behera zihoan Europa batean. Izan ere, Amerikako kultur eredu berriak, jendetzari puntako intelektualitateari baino garrantzia gehiago ematen dionak, itzalean uzten du mendebaldeko zibilizazioaren iturria izan dena, pentsalari handien Europa, alegia.

Bere *kultur identitate*a kinka larrian ikusi ostean, *europar kultura* gaurkotutako edukiz janzteko saiakerak, iraganeko zenbait pasarteri so dirau. Behin hona iritsitakoan, ez dakigu ez ote den nahi, edo ez ote dakiten edota ezin ote duten zinez gairitu kulturen alborakuntza hutsez osatutako europar kultura. Gisa horretako elkarretaratze txepel neutral ustezkoak, bai *europar kultura* baita *europar identitate*a ere, bere baitan gatazkan bizi direla agerian uzten du.

Bestalde, kultur itxura emate prozesu hori, ez da bare-bare garatuko den zerbait. Estatuak, Parlamentuak, Europako Kontseiluak edo ordezkariarik ez duten talde gutxituek tirabirak dituzte beren artean. Kultur gaiak ezinegona sortzen du eta erakunde europarrak egoera ahalik eta apalen gera dadin saiutzen dira.

Bukatzeko, Caroline Brossaten ikerketaren ondorioak argi eta garbi azaltzeko, egokiago deritzot, ondoren datorrena, bere hitzetan biltzea:

Europarrak batasunaren ideia sendo baten inguruan bildu behar luketen uen berean, kultura europarraren ideia ahultzen da, europarren identitate kulturalarekin nahas-mahasean ageri da. Ondorioz, aurrerantzean inork ere ez daki zer esanahi duten kultura europarrak eta europarren identitate kulturalak. Egungo kultura europarrak, europar erakundeentzat, eta beroien borondate onezko adierazpenak direlarik ere, oroz gain zera dirudi, Europa maila politikoan, ekonomikoan eta kulturalan mehatxatzen dutenei aurre egiteko erreakzioz ari den kultura bat besterik ez dela⁶.

Europar Estatu desberdinen artean kultura antolatzeke dauden ikuspegi ugariak, eremu honetan europar erakundeek hartu behar duten jarrerari buruzko kezka piztu dute. Gisa honetan kulturaren inguruan erantzunkizunak hartzeak edo ezak erreakzio bat sortarazi du: kultur gaietan elkarrekin esku ez hartzeko jarrera⁷.

6. Ibid. 396. «C'est au moment où les Européens devraient se concentrer sur une idée forte exprimant l'idée d'unité, que le sens de *culture européenne* s'affaiblit, accompagné de sa confusion avec *identité culturelle européenne*. Finalement plus personne ne sait ce que *culture européenne* ou *identité culturelle européenne* signifient. La culture européenne du présent paraît avant tout, pour les organisations européennes et malgré leurs affirmations parfois volontaristes, ne se limiter qu'à être une culture de réaction face à ce qui menace l'Europe, aux niveaux politique, économique ou culturel».

Kulturak bere askatasuna galdu du, Bigarren Mundu Gerraren aurretik zuen hura eta intelektualek beren zaletasunaren eta erantzukizunaren artean zutena. Lehen baino gehiago, naziarteko erakundeen eta Estatuen esku artean tresna bat, politikarako tresna bat bilakatuko da. Kulturak Estatuen baitan izango duen aldaketa honen ezaugarrietako bat emeki-emeki egingo den politizazioa da, bereziki Unescoren baitan⁸.

Irudi luke europar kulturaren garapen dinamikoak eta bere deribatuak, europar erakundeek Europaren eraikuntzari buruz bereziki hartu duten kontzientziaren adierazle direla.

Kultura europarrari buruzko azterketa, ikuspegi hau baino haratago kokatzen da: badirudi etorkizunerako harremanak zabalik daudela europar kultura eta Europaren eraikuntzaren artean. Agian, eztanda egin duen egoera baten atarian gaude: kulturen eztanda; egungo kultura europarrari buruz azalpen eraginkorrek emateko ezintasuna edo ukazioa; gai mobilizatzaileen desagerpena —adibidez, batasun politikoarena—; *kultura europarra* ideia beraren deuseztapena ultraliberalismoaren ikuspegi amorratuaren aurrean; europar arazoek kudeaketan gero eta protagonista gehiagoren esku hartzea; zenbait arazo europarri aurre egiteko, Estatu europarrek herrialdekoei baino gehiago mundu mailako erakundeei buruz egindako hautua; europar erakundeen artean kohesiorik eza,...⁹.

Joan den urte hondarrean, 2000.eko abenduan hain zuzen ere, Nizan bildu zen gure agintarien ordezkariarik gorenena. Europako Konstituzioaren oinarriak aztertzea zuten helburu. Hala ere, azken urteetan ikusi den moduan, batetik, hiritarren partaidetza gero eta urrunago kokatu nahi dute, eta, bestetik berriz, agintariak beraiek gogo bizi baino errezelo gehiagorekin jokatu dute. Noizean behin, komunikabideen bidez kostata erdietsitako asmoren baten berri ematen zaigu, nahiz apenas iristen zaigun akordioetara heltzeko izandako elkarrizketa eta gora beheren berri. Badirudi, inoren ahotan entzun ez arren, kulturari buruzkoak beretzen utzita daudela. Gainera, estaturik gabeko herriak, beraiei entzuten ez zaiela eta, kexati ageri dira. Herrien Europak, beraz, joko arauen artean ez du oraino tarterik.

7. Ibid. 398. «La variété même des situations relatives à l'organisation de la culture au sein des différents Etats européens, a posé le problème de l'intervention des organisations européennes dans ce domaine. Ainsi les différents types de prise en charge ou de "non" prise en charge de la culture ont conduit à un même type de réaction: le refus d'une intervention culturelle commune».

8. Ibid. 401. «La culture a perdu la forme de liberté dont elle disposait avant la seconde guerre mondiale et qui en faisait un domaine de prédilection et de "responsabilité" des intellectuels. Elle est devenue, plus qu'auparavant, un outil, et notamment un outil politique aux mains des Etats et des organisations internationales. Un des signes du changement de la place de la culture au sein des Etats est bien sa politisation progressive, en particulier à l'UNESCO».

9. Ibid. 402. «On peut estimer que l'évolution dynamique de culture européenne et de ses dérivés est significative d'une prise de conscience particulière des organisations européennes envers la construction de l'Europe. L'étude de la culture européenne va au-delà du simple examen de cette notion: il semble qu'elle ouvre la perspective d'une relation entre la culture européenne quant à la construction de l'Europe. Nous sommes face à une situation peut-être éclatée: explosion des cultures, refus (ou impossibilité de donner des définitions opératoires claires d'une culture européenne actuelle, disparition des thèmes mobilisateurs (comme celui de l'union politique), dilution de l'idée européenne de la culture face à un de ses traits exacerbés qui est celui de l'ultralibéralisme, intervention d'acteurs de plus en plus nombreux dans la gestion de problèmes européens, choix des Etats européens eux-mêmes d'organisations mondiales plutôt que régionales pour aborder certains problèmes européens, manque de cohésion entre organisations européennes et face au reste du monde...».

2.4. UNESCOren kasua

Erakunde honek bizi duen egoera bera ere adierazgarria da, nahiz jakina den bere itzala Europatik haratagoko nazioarteko eremuetaraino heltzen dela. *Déclaration des Principes de la coopération culturelle internationale* (1966) delakoak bere lehen artikuluan¹⁰ zera dio:

- 1.1. Kultura orok du begirunez zaindu behar den duintasun eta balorea.
- 1.2. Herri orok du bere kultura garatzeko eskubide eta betebeharra.
- 1.3. Kulturak gizateriaren ondare beraren osatzaile dira, beren aniztasunean eta batzuek besteengan dagiten eraginean.

Hala ere, hasiera batean Unescok intelektualei deialdia egin zien arren —garai hartan nolabait kultur sormenaren erantzule sentitzen ziren neurrian—, Caroline Brossatek dio denboraren poderioz argi ikusi dela, orduan baiezkoa erantzun zutenei politikarien jostailu izatea egokitu zaiela. Gisa honetan, kultur ekimenaz ulertu beharrekoa unean uneko interes politikoen arabera irakurketen morroi bihurtu da. Horregatik, gero eta gutxiago dira, punta-puntako intelektualen artean behintzat, horrelako kultur garapen ereduekin bat egiten dutenak (Cfr. Brossat 1999: 342-351). Horra bada, honaino, Caroline Brossatek bere azterketen ondorio bezala adierazitakoak.

2.5. Europako Zientzia Elkargoa. *European Science Foundation* (ESF)

Europar erakundeen aipamena egin dugunean, zuzendaritza batzordekoak ez diren taldeak ez ditugu aipatu. Azken hauetan, pentsamendua fiteago dabil eta jarrera ausartago nahiz aitzindariagoak agertzen dira, erabaki politikoak hartzen dituzten erakundeen begiradapean dauden arren. Aipatu elkargo horietako bat da ESF deritzana.

ESF delakoa 1974an sortu zen zientzia eta giza gaien alor guztiak aztertuko zituen elkarte moduan. Arlo ugaritan antolatutako dago, baliabide eta marko funtzional desberdinen arabera sailkatua. Goitik heldutako erabaki politikoen edo behetik gizartearen alor desberdinetatik datozen eskarien arabera jokatzen du.

Humanitateen arloan, *Standing Committee for Humanities* delakoan, 1998-2001 urteetarako *Ezagutzaren eta baloreen transmisioa* izenburua daraman arloari eman diote lehentasuna. Honoko hau dio idazki horren paragrafo nagusienetako batek:

Gure errealitate pertzepzioan, ezagutza prozesuan eta nortasunaren eratzearen oinarrian datzan jakintza, komunikazio eta emozio-prozesuak aztertuko dituen ikerketa baten premia larria da. Herrialdeen edo ikertutako komunitateetako taldeen berriazko tradizioan egon badauden hutsuneak aztertzea beharrezkoa da, baita erakundeek ezarritako mugek duten eragina hobeki ulertarazten lagunduko duten gaien

10. Honela dio lehen artikulua horrek jatorrizko bertsioan: «1. Toute culture a une dignité et une valeur qui doivent être respectées et sauvegardées. 2. Tout peuple a le droit et le devoir de développer sa culture. 3. Dans leur variété féconde, leur diversité et l'influence réciproque qu'elles exercent les unes sur les autres, les cultures font partie du patrimoine commun de l'humanité».

azterketa ere. Paradigma desberdin hauen arteko elkarreraginak ardura berezia merezi luke¹¹.

Beraz, garrantzitsuena esana dago eta argi esana gainera. Dena dela, ondoren datorrenak zera dio: «baliagarri izaten ahal da hezkuntza, kultura eta politika sozialaren alorrean erabaki politikoak hartzeko ere¹²». Honek, nire ustez, aurrekoaren argitasuna apaltzen du. Horregatik, neurri batean ulerkorra izatearekin batera, bortxatuegia dela iruditzen zaidan zatitxo horren ordezkapena proposatuko nuke esanez, Europako giza banakoen eta giza kolektiboen baldintzen hobekuntza emeki-emeki garatzen joateko helburuari buruz lan egin behar dela. Askoz ere jarrera jatorragoa litzateke eta, aldi berean, datozen belaunaldientzat erakargarriagoa.

3. Bide berriak

Ikusitakoaren arabera, begibistakoa da *europar kultura* adierazpena eta bere edukia polisemikoa eta anbiguotasunez jositakoa dela. Beraz, erabilpena egiten duten intelektualak direnak direlako, Estatu batean edo bestean erabiltzen den modua halakoxea edo horrelakoxea delako, nahiz Europako erakundeek berek zentzu bakar batean erabiltzeko gaitasunik ez dutelako, gure aldetik jarrera desberdinak hartzen ahal ditugu:

- a. Berek argitu dezatela kontua. Ondorio kezkarrien iturri litzateke hain oinarri hispanoa duen jarrera hau: «*que inventen ellos*».
- b. Arazoa nominalismo hutsera, izenetara mugatzea. Azpian dagoen oinarriko arazoa estaliko luke jarrera horrek.
- c. Ildo ekonomikoek kultur eremuak baldintzatuko dituztela etsipenez onartzea. Karl Marxi arrazoa ematea litzateke, kultura gainegitura hutsa bailitzan. Sarri horrela den arren, ez luke zertan horrela izan.
- d. Guk geuk bide berriak urratzea. Kultura zer den eta europar kultura zer izan dadin nahi dugun sakontzea lekarke jarrera honek.

Azken honen aldeko hautua eginen dugu: gizakiarentzat eta giza izatearentzat kultura zer den zentzu zabalean sakontzea. Jakin badakigu ez dela inondik ere hauturik errazena. Gertatzen ari denari buruzko kultur analisi deskriptiboak gainditzea ekarriko luke jarrera honek. Gizartearen larruazalaren azpian sartzea, bere izate kolektiboa eta ezagutzak bereganatzeko giza prozesua aztertzea, azken batean, ezagutza pertsonalaren nondik norakoa ikertzea lekarke.

Hona hemen, labur bada ere —beste batean, zabalago landuko dugu atalez atal sekuentzia guztia—, aukera hau bideragarri egiteko ohar zenbait.

11. *European Science Foundation. ESF Plan 1998/2001*, 59. or.: «Research is urgently required to analyse the cognitive, emotive and communicative processes that lie behind our perception of reality, formation of knowledge and identity building. Existing gaps between intellectual traditions specific to countries or groups of research communities or disciplines need to be studied in order to reach a better understanding of the weight of institutional boundaries. Interaction between particular paradigms requires particular attention».

12. *Ibid.* 59. or.: «could also be useful for political decision-making in educational, cultural and social policies».

3.1. Nondik hasiko garen zehaztea

Kultura hitza erabiltzen dugunean zein maila diskurtsibotan kokatzen gara? Garbi dago ez garela abere, landare eta mineralen eremuaz soilik ari. Arrazoidun maila batean kokatzen gara. Baina, zer da? Ekintza bat? Emaizta bat? Gertaera bat? Guztiok bat gatoz prozesu bat dela adierazterakoan. Arrazoizko prozesu bat edo nahi izanez gero —prozesu hauek soilik biologikoak direnez— esan genezake kultura bizipen intelektualaren prozesutik sortzen dela.

Arestian aipatu dugun analisi etimologikoan, ikusi dugu *colo* aditzak berak prozesua adierazten duela. Ez gaitezen, bada, beronen hitz eratorriek adierazten duten ustezko estatikotasunera mugatu. Forma gramatikalak diren neurrian, baden egoera bati izena ematen dioten arren, prozesu dinamikoko baten hondarreko ondorioak dira. Adibidez *kultu* hitza, agian kulturako erabiltzen ditugun objektuz osatutako errito-prozesua da, baina objektu horiek ez lukete inolako zentzurik eta edukirik ukanen isolatuta utziko bagenitu.

Beraz, gure kultur ekimenean bazterrean utzi behar ditugu kultura eskuz esku dabilen objektu bat dela aditzera ematen duten ikuspegiak. Demagun irakurlerik ez duen liburu bat: zer litzateke? Balantza batean pisura neur litekeen paper mordo bat baizik ez. Edo zer litzateke artelanik handi eta zoragarriena nork atseginez gozaturik eta interpretaturik ez balu? Honako hauxe: mineral edo egur mordoa, pinturaz zipriztindutako mihise edo dena delako puska bat. Musikak mezurik adierazten ez badu, soinua, zarata besterik ez da. Hitzez adierazten dugunak ere, hizlariaren eta entzulearen arteko prozesu intelektualik gabe ez du berezko zentzurik. Europar kultura publizitate mezu hutsa izatera mugatuko da, baldin eta europarrak diren eta bizi duten kultura behar bezala islatzen badu.

3.2. Kultur bizipena ezagutza ekimenean sekuentzia biologikoa da

Sentikortasun, sentsazio, sentimendu eta bost zentzumenen bidez heldutako milaka eta milioika ezagutza-prozesuren soka luzean burmuinean nahas-mahasean osatzen doan huraxe da kultura. Haurraren garun zirkuituak obulua ernaltzen den unetik hogeita bigarren hilabetera osatzen dira. Beraz, jaio eta hamahiru hilabetera. Bistan da, gure arrazionaltasuna ez dagoela bere indar betean sortzen garenean. Landu egin beharko da.

3.3. Bizitzako lehen urteak

Norberaren kultur bizipena osatzerakoan bizitzako lehen urteak erabakigarriak izaten dira. Urte horietan bizitzen den ingurunea betirako markatzen duena izaten baita. Anglosaxoniarren artean hain entzutetsua den *nature versus culture* eztabaida, jakina da ez dela bata bestea gabe moldatzen ahal. Elkar behar eta elkar baldintzatzen duten txanpon bereko bi aldeak dira. Gertukoa eta urrunekoa modu desberdinez ikusten eta bizitzen/sentitzen dira. Helduak garenean, buru-garapen sendo eta bizi esperientzia hausnartuarekin, urrunekoa gureganatzen eta epaitzen ikasten dugu. Hori ere, arrazoiaren nahiz elementuen arteko alderaketaren bidez egiten dugu, beti ere haurtzarotik txertaturik dauzkagun interpreta-ziorako giltzarrien eta moduen arabera.

3.4. Datuen metatzaileak gara

Ikuspegi mekanikoezia dirudien arren, pertsonen kultura ezagutzen metaketa dela ikustarazteko lagungarri zaigu. Bistan da ez dela metaketa hutsa, bakoitzak dituen interesen arabera egitura bati jarraikiz eginikoa, baina azken batean, metaketa. Norberari bere kultura pertsonala osatzeko bide bi baizik ez zaizkio gelditzen: batetik, bere esperientzia zuzena, bestetik, berriz, besteen bidez, zeharbidez, eskura dezakeena.

Bide biak elkarren osagarri dira, ez isolaturik gertatzen direnak, eta are osagarriago, kultur ezagutzak katalizatzaileak ezinbestekoak dituen mendebaldeko gizarte honetan. Iturri biek elkar behar dute, elkarren ondoan jario emaritsua daria. Ez dago, bada, hirugarren biderik.

3.5. Gizarte ingurunea eta kolektibotasuna

Joko dialektiko horretan, egitura baten premiak, ezagutza berriak gunerik egokienean kokatuko dituen interpretazio-kodeen beharrak, garrantzi nabarmena ematen dio inguruko gizarte giroari. Kultura pertsonala da, baina beti ere dagokion garapenerako ingurune baten beharrean dago. Beraz, behin honetara helduta, kultura kolektiboaz ari gara, eta lan honi dagokionez, europar kulturaz: alegia, guztiok ezagutzen ditugun datu sailak; interpretazio-kode antzekoak; erraztasunez transferigarriak; azken batean, europarroi giza multzo zehatz bateko garaia ulertzeko baliagarri zaiguna.

Honetan datza hizkuntzen garrantzia, izan ere, mendez mende kolektibitate bakoitza osatuz joan den kultur interpretazioen gordailu baitira. Baina hizkuntza, ezagutzak adierazteko ezinbesteko komunikazio bidea den arren, osagai formala baino ez da: adierazten duen esanahiaren adierazlea. Esanahi horiek, bere oinarrian, balore, jarrera, sentimendu multzoak elkar-lotura sinboliko eta semantikoe-tan nahas-mahasean aurkezten dituzte, beti ere hizkuntza bakoitzari dagokion idearioaren baitan. Esanahi horiek, hizkuntzaren joskerak modu gramatikal eta sintaktikoen bidez ehotzen duen zera baino haratago daude. Multzo dinamiko hau da, bere osotasunean, bizi kulturala deritzoguna.

4. Giza dimentsioaren lokadura

Orain arte azaldutakoaren arabera, kultur kolektibitate bakoitzak egin duen bidea aztertuta, gizateriak XX. mendera arte egindako bidea osatutzat eman genezakeen. Mendeetan zeharreko ibilbidean, kulturak, herriak ez dira bere buruaren baitan itxirik egon. Gure aurreko belaunaldiak beste kulturekin trukerik egingo bazuten, bide bakarra harremanetan jartzea zuten, harreman fisikoan. Elkarri norbere esperientzien berri emateko beste biderik ez zuten. Antzinatik, ordea, harreman horiek kultur objektuen bidez ordezkatzeko joera izan da. Gisa horretan, lehenik irudia erabili zuten, ondoren, berriz, idazkera. Guri bizitza dagokigun aro birtual edo alegiazko honetara heldu arte, gure aurrekoak euskarri fisiko batek berekin dituen baldintzen mende saiatzen ziren adierazten intelektuaren mezua.

Hala ere, izandako garaien isla besterik ez da hori. Izan ere, XXI. mendean komunikabideak, gizakion zein ideien harat-honatak hain dira azkarrak, apenas

gizaki heldu bati gaindiezina zaion oztoporik aurkitzen duten. Gauden gaudenean, gero eta errazagoa da kulturez osaturiko kultur mailez gogoeta egitea. Ba al da horrelakorik? Egiatzko kulturak ote dira? Zibilizazioak deitzen ahal ote zaie? Kultur egitura bezala gorpuztuak ote daude ala bereizgarri batzuk partekatzen dituzte soilik? Lurralde batean bizi direnen artean nortasun agiri bat banatzea ez da zaila, baina hori nortasun partekatu baten adierazgarri ote da? Nola moldatzen ahal da lekuan lekuko kulturen eta estatuetako, euroherrialdeetako edo Europa osokoaren artean ohikoa den tirabira, beti ere datozen belaunaldietakoak gizakiagoak izan daitezela helburu nagusi izanik?

Gisa honetako suprakulturak egokiak edo desegokiak diren eztaibada zabalik dago. Europar Batasunak bere isiltasun, elkarrizketa, bozketa eta erabakien bidez ematen duen erantzuna honako hau litzateke: «segun eta nolakoak diren». Begibistakoa da kultura batzuk desagertzeko zorian daudela. Beraz, kultur garapenaz ari garenean lehentasunezkoa iruditzen zait zein helbururi buruz ari garen argitzea: gizakiaren garapen osatuena eta handiena bilatzea; eta, ez halako edo bestelako kultur politika eragitea; ezta ere nortasun, politika edo administrazio elkartzeko edo banatzeetik abiatzea, horiekin bat egiten duten giza taldeentzat lagungarri edo oztopagarri izanen denentz jakiteke.

Lekuan lekuko kultura txikiak Estatukoari eta Estatuena Europakoari egokitzean gerta litekeen arrisku bakarra, txikiak behin betiko itotzea litzateke. Zati txikiak osotasun batean txertatzean, nonahi hedatzeko duten gaitasunaz suntsituko lukete handiek (txikiak) balore sistema. Beraz, helburua belaunaldi berriak gizaki bezala egokiago garatzea dela kontuan izanik, nola moldatzen ahal da gatazka hori? Horra hor, nondik abiatu behar den.

Adierazi dugunez, anitz kultura desagertzeaz edo behintzat galtzeko arriskuan dago. Dirudienez, naturari biodibertsitatea zor zaio baldin bizi kalitatezko izango badu. Beraz, dibertsitate hori, aniztasun hori ez zaie arrotz giza bizitzari eta kultur bizitzari berari ere. Nola sortzen ahal dira emaitza onak ekarriko dituen kulturen arteko harremanak? Berezko kemena duten kulturak ez badira, ezinezkoa da elkarren arteko harremanik lortzea. Elkarri zor dioten begirunerik gabe, elkar trukaketa lapurreta hutsa litzateke, gehienez jota plagioa. Europa eraikitzen ari garen honetan, Estatu bakoitza bere kultur interesak aurrera ateratzen ari da. Egindako mugimendu taktiko bakoitzean nor bere botere eremua zaintzeaz arduratzen da. Beren herrien ordezkariak al dira? Estaturik gabeko kultur europarrei itxaropenezko etorkizunik eskaintzen ote diete? Honek oinarri-oinarrizko kezka batera garamatza: berea duen kultur aniztasunik gabeko Europa, bere herrien kulturarik gabeko Europa, bere nortasun kolektiboen adierazle diren kulturarik gabeko Europa, zinez Europa ote litzateke?

5. Guztiona den Europarantz

Erantzun zaileko galdera hauei teoriak haratago aurre egiteko, orri hauetan ageri den baino diskurtso pausatuago baten beharra ezinbestekoa da. Hala ere, galdera hauek etsipenera edo harridurara eramanez ez gaitzaten, bihoa besterik ezean, guztion Europa eraikitzeke partekatzen ditugun baloreen gaineko azterketa nimiño bat. Oraino, behar hainbesteko zehaztasunik gabe, *Herrien Europa* izen-

burupean biltzen dena litzateke, nire ustez, baliagarri zaigun eredia. Herrien kultur gaitasunak bizkortu eta aberastuko lukeen marko europar baterantz jotzen du.

Ezagutza prozesuan ikusten denez, gizakia giza taldean —habian bailitzan— garatzen da. Zentzugabekeria litzateke, beraz, haur sortu berria izugarritzko habi edo seaska batean, erabat galduta sentiaraziko lukeena aurrerapauso bezala ikus-tea. Etorkizunari buruz egiten den edozein plangintza kulturalak biologia, psikolo-gia, pedagogia eta giza izatearen garapenari buruz ari diren ikerketa alorren ondorioak gogoan izan behar ditu. Horren araberrako neurriak hartu beharko dira, giza garapenak bere neurriko habiak ezinbestekoak dituela ahantzi gabe. Azalckerietan maisu den anitz orojakitunek, sarri unibertsaltasuna aldarrikatzen du balore gorena bailitzan. Egia da munduari so begiak zabal izateak, unibertsaltasun horren partaide izateak, zentzu sakona duela. Baina aldi berean, ez da zilegi balore horren erabilpena, azken helburua inguru hurbileko habiak —familiarrena, norbere intimitatearena— ordezkatzeko erabiltzen bada. Intimitatea zer den ez dakien gizakiak, hain zuzen ere, gizakiongan erakargarrietakoa den bizipena faltan du. Eta hori psikologikoki, zinez, kezagarria da.

Lehen ingurune biologiko horren defendatzaile garenok, aurre egin beharreko erronka dugu parean: gizakia heldutasunera heltzen denean, izan dadila habi horietatik urrun hegan egiteko gai, agian egin ditzala beste habi batzuk eta, zergatik ez, baten bat hegazti emigratzaile ere izan dadila. Zentzu horretan, kultura txikien hurbiltasuna eta etxekotasuna, kultura handiagoen eremuan elkarren trukean aritzearekin bateragarri egin behar dugu.

Hona hemen, bada, giza izatea gogoan hartzen duen baloreen esparru bat, ezagutzen aberastasuna eta zabaltasuna hurbileko inguru afektiboarekin bateragarri egiten duena:

1. Europako kulturaren historian elkartzan ahal gaituzten bilgune ugari dauz-kagu: filosofia eta kultura klasikoa, kristau erlijioak, hurbileko hizkuntzak, artela-nak, musika, ohiturak, folklorea, kirolak, e.a.

2. Egungo errealitatearen ezagutzari dagokionez gizakiari gehiago ardur-a behar zaio inguruko datuez jabetzea urrutikoetan —ez zentzu eta ez nondik nora-koak ezagutzeke— erdi galduta ibiltzea baino. Ez gara nonahikoak, eta ez dugu nonahikotasunean bizi ahal izateko gaitasun fisiko eta mentalik. Han edo hemen, leku bati atxikiak bizi gara eta biziko.

3. Giza baloreen sistema gaurkotzea. Javier Echeverriak *Telepolis* deitzen duen gunean, bizitzak hartu duen abiadurak, eskizofreniak eta estresak gizakien balore sistema kili-kolo ezarri du. Errenazimendu garaian, Europak aintzat hartu zituen baloreak honako hauek izan ziren, besteak beste: lana —banakakoa zein taldekoa, gogora dezagun gure artean auzolanak duen errotzea—, naturari atxiki-mendua, lurrarekiko erantzukizuna eta berarekiko/herriarekiko lotura, abegitsua izatea, ohorea, e.a. Garai horretatik aurrera, zientziaren garapena izan da balorerik nagusiena. Ondoren ilustrazioa heldu zen, hiritar berrien buruak argitzera. Fran-tziako Iraultzaren *Liberté, Egalité, Fraternité* delakoak ekarritako ideiak barreiatu ziren han eta hemen, nahiz munduko zein bizitzako zenbait eremutan oraino estrai-natzeko dauden. Eskubide zibilak sortzen dira, edo hobeki esan, aitortzen hasiko

dira. Bestalde, Europa sozialismoaren seaska izanen da. Herrien eskubideen inguruko kezka piztea orduan hasiko da. Herrien eskubideak aldarrikatuko dituen teorizatzailek ere bada. Balore horiek guztiak, gehiegikeriaz edo hutsunez, bizi eta defendatu izan dira. Horixe da, gai nagusia. Eta, nire ustez, balore horien bizipena sustatzeari atxiki behar zaio Herri bakoitza, diseaturik geldituko ez badira (baloreak zein Herriak). Kultura bizia da eta bizitza da. Ez dezagun, bada, plastikoa izatera mugatu.

4. *Thinking global, acting local*. Errezeta bat den aldetik, ez deritzot esku artean dugun gaiaren giltzarria denik. Baina bada azpimarratzekoa, zenbait multinazionalak eslogan bezala aukeratu dutela. Beraien industriek aurrera eginen badute, ohartu dira nonahikotasuna ez dela bidea, herrialde/eremu batzuetan lan egin behar dutela. Damaskon eta Sidney kimika-formula berbera erabil liteke. Baina bistan da, gizarte-formula berbera ez dela erabiltzen ahal. Aipatu baloreak, kultura guztiek bizitzen ahal dituzte, bakoitzari dagozkion neurrien arabera. Begibistakoa da europarroi —bederen—, herri eta gizaki bezala garatzeko, baliagarri izan zaizkigula eta egun ere horrela zaizkigula. Giltzarria —berriz diot— giza dimentsioa begirunez hartzea litzateke, ingurune hurbileko kolektibitateaz jabetzea. Obanosko Infantzoien armarran ageri den lema iparrorratz moduan lagungarri zaigu: *Pro libertate patriae gens libera state*.

Batetik, elkarri zor diogun begirunea nahiz gizakien eta herrien baloreen garapena, eta bestetik, inguru hurbilari, erantzukizun eta ezagutza eremu zaigun neurrian zor diogun ardura ahortzi gabe, horra hor non topa dezakegun bideragarria litzatekeen europar kultura ilusioz aurrera eramateko aukera.

6. Hondarreko

Euskal Herrian kultura europarretik zer hartu behar ote dugun edo kultura europar hori nola bizi dezakegun, ez dut batere argi ikusten. Nondik hasi? Non kokatu? Gurean nola txertatu? Hainbat galdera argitu beharko genituzke zer edo zer proposatu aurretik. Artikulu honetan orain arte ikusi dugun gisan, ez dago argi zer den kultura europarra deritzan hori.

Euskal Herritik kultura europarrari zer eskaini diezaiokegun aztertzeotan, aldiz, uste dut erantzun erraza dugula: euskal kultura bera eskaini behar diogu europar kulturari. Gure eginkizun nagusia, gure herriaren egoera hiru zatitan hain desitxuratuta izanik, hiru administrazioen esku, alegia, Europar zaharrena den Herriaren kultura (hizkuntza, ohiturak, zuzenbidea, folklorea, e.a.) egituratzea eta eskuragarri bihurtzea litzateke. Horra hor, Europako Herri eta gizon-emakumeendako eskaintzen ahal dugun emaririk onena.

Bukatu baino lehen, unibertsaltasun-globalizazio fenomeno kulturalari buruz zerbait esan nahi nuke: kulturak adierazten duen unibertsaltasuna eta ezinbestekoa duen hurbiltasuna nola uztartu asmatzea dugu erronka nagusia. Honi begira, azken ohartxo bat: gehienetan unibertsaltasuna aldarrikatzen dutenek zentzu horizontalean erabiltzen dute hitza. Oso bitxia da nola herri kulturaren aparrez jositako irudia lortzen duten mestizazio osoa izanen den izaera beraren azpian. Haien ustez, menpeko kultura txiki horretatik hartu eta, bere horretan, beste edo-

zein kulturatara transmiti daitezkeen osagarriak, unibertsaltasunaren balioa izango duten kultura baten ezaugarriak izaten dira. Prozedura honekin, noski, nahiko neutro, inozoak eta gezak diren osagarriak osatzen dute pankulturala den orea.

Baina bada unibertsaltasunaren balioa bilatzeko beste bide bat: inmersioa, gizakiaren barnerantz garamatzen hausnarketa sakona. Barneko bilgune horretan edozein gizakiren eta herriren kultur muinean, unibertsalak diren balioak topatzen dira. Ez, beharbada, bere horretan transmiti daitezkeenak, baina bai egokipen xume baten bitartez beste edozein gizakik edota herrik dasta ditzakeenak. Hauek ez dira azaleko balioak, sakonekoak baizik.

Arestian aipatu ditugun baloreen artean, balore kristauak koka ditzakegu hain zuzen, bai jatorriz, bai legez, bigarren eredu honetan oinarritzen baitira. Kristauen ikuspegian, gizakiaren sakonean aurkitutako eta edozein gizabanakori egokiak zaizkion balio unibertsalak egon badaude. Kristauen portaera beti honelakoa izan ote den beste kontu bat da. Baina kristau balioen azterketa eta gaurkotasuna beste baterako utziaz, uste dut unibertsaltasunaren giltza ez dugula azalkeketan bilatu behar, sakontasunean baizik, inon baino egokiago sakontasunean aurki ditzakegulako gizakiaren eta herrien kulturaren giltzarriak.

Bibliografia

- Amezaga, J., (1995): *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*, EHU-UPV arg., Leioa.
- Brossat, C., (1999): *La culture européenne: définitions et enjeux*, Ed. Bruylant, Brusela.
- Cantwell, A-M.; Friedlander, E. eta Tramm, M.L., (2000): *Ethics and antropology*, Annals of the New York Academy of Sciences 925.
- Dennett, D.C., (1996): *Kinds of Minds*, Ed. Basic Books, New York.
- Goleman, D., (1995): *Emotional Intelligence*, Ed. Bantam Books, New York.
- , (1998): *Working with Emotional Intelligence*, Ed. Bantam Books, New York.
- Lorenz, K., (1993): *La ciencia natural del hombre*, Ed. Metatemas, Bartzelona.
- Rabade, S., (1995): *Teoría del conocimiento*, Ed. Akal, Madril.
- Zulaika, J., (1996): *Del Cromañon al Carnaval*, Ed. Erein, Donostia.